



HISTEROSALPINGOGRAFIA

Zertan datza proba?

Histerosalpingografía edo HSG X izpien prozedura bat da jakiteko Falopio tronpak irekita dauden ala ez, eta ikusteko umetokiaren barrunbea normala den ala ez.

Zer egin behar dut?

- Ez ahaztu abisatzea kontrako erreakziorik izan duzun beste batzuetan, iododun kontrasteak dituzten probetan.
- Beharrezko badu, proba aurreko gauean, ezarritako antibiotikoa hartuko du.
- Proba egiteko ez da beharrezkoa baraurik etortzea.
- Medikamenturen batek alergia sortzen badizu ginekologoari esan. Kontrakorik esaten ez baduzu, Nolotil® compositum eta Lexatin® pilula bat hartuko dituzu proba egin baino ordubete lehenago.
- **OSO GARRANTZITSUA** da ziur egotea **EZ ZAUELA EZ HAURDUN EZ HILEKOAREKIN** proba egin behar den egunean. Kasu horietan ez dizute proba egingo.

Proba non egingo didate?

Proba behe-solairuan egiten da, Erradiodiagnostiko-Zerbitzuan, aurretik eguna eta ordua eskatuta.

Proba nola egingo didate?

Izpi-mahai batean etzanda egongo zara, hankak flexionatuta. Baginan aparailu bat jarriko dizute, ginekologoak aztertzen zaituenean erabiltzen duenaren antzekoa. Kanula edo sonda baten bidez kontraste bat sartuko dizute erradiografiak egin ahal izateko.

Azterketak molestiak sortzen ditu, baina ez da anestesiarik behar. Iraupena 15 minutukoa da gutxi gora behera.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

Hurrengo egunetan, sabelaren beheko aldean minik sentitzen baduzu edota sukarra agertzen bazaizu zure medikuarengana jo.

